



Alboka Folk Taldeak, Arriaga Antzokiko foyerrean emango duen kontzertu bereziarekin itxiko du talde gisa bete duen 25. urteurrena ospatzeko bira

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 17an – Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatzen duten “Literatura eta Musika Euskaraz” zikloak beste musika gaubela bat eskainiko du datorren astelehenean, urtarrilaren 20an, 19:30ean. Arriaga Antzokiko foyerrak, **Alan Griffin** eta **Joxan Goikoetxea** buru diren **Alboka Folk Taldea** hartuko du. Kontzertu horrekin amaiera emango dio talde gisa bete duen 25. urteurrena ospatzeko birari. Taldea boskote gisa agertuko da ikus-entzuleen aurrean, gune horrek ematen duen berotasunera eta gertutasunera egokitutako proposamenarekin.

Bere erreperitorioan, Alboka Folk Taldeak, orain arte argitaratu duen “Lurra, ur, haize” azken diskoko abestiez gain, aspalditik zuzenean interpretatzen ez dituen aurreko lanetako melodiak ere eskainiko ditu. Alan Griffinekin (alboka, txirulak eta muxukitarra) eta Joxan Goikoetxearekin (akordeoia) batera, ohiko musikariak arituko dira, **Xabi San Sebastian** ahotsetan eta gitarrarekin eta **Juanjo Otxandorena** bouzukiarekin, eta baita **Iosune Marin** ere, bigarren gitarrarekin eta mandolinarekin.

Alboka Folk Taldea euskal folkaren talde sendoenetakoa eta esanguratsunetakoa da. Sortu zenetik abestiak egin ditu –abestutakoak eta musika-tresnekin jotzekoak–, horietako batzuk euskal erromantze tradizionaletan oinarritutakoak, eta beste batzuk asmatu berriak, baina beti ere musika herrikoari leial izanda.

Forma onean

Arriaga Antzokiak, oso une onean dagoen musika taldearen kontzertu berezia jasoko du. Duela pare bat urte “Lurra, ur, haize” bosgarren diskoa argitaratu zuten. Dantzen eta antzinako erromantzeen bila doan bidaiara eramango gaituzten 17 abesti jasotzen dira bertan. Baina Alboka Folk Taldea ez da gelditu, eta dagoeneko etorkizunari begira dago, eta buruan hainbat egitasmo ditu. Bitartean, datorren astelehenean, Arriaga Antzokian, taldearen 25. urteurrena ospatzeko birari amaitzeko unea helduko da.

SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bidez eta antzokiko leihatilan, alde zuzeneko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus